



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 24a

116. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteko txostenetan jaso ditzan laguntza tekniko eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea egunera dezan eta urtero adieraz dezan zeintzuk diren interes orokorreko helburuetarako lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen, Atlantikoko mendien, Estellerriko mendialdearen eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendien berariazko ekintza planak gara ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraio bide kolektiboaren erabilerarako. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak onetsia (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txosteneko ondorioak eta gomendioak ezar ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Muru Arterderretaren eta Gasteizen arteko 400 kW-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten adierazpenarekin. Osoko Bilkurak bazter utzia (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnosi-azterlan bat egin dezan, udalen gizarte-zerbitzuetan langile nahiz aurrekontu alorretan dauden gabeziak hautemate aldera. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak bazter utzia (21. or.).
- Adierazpen politikoa, Saharako herriarekiko elkartasuna adieraztekoa. Osoko Bilkurak berretsia (21. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Infanta Elena egoitzaren funtzionamenduaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa ziurtatzeko, José Javier Monzón Romé jaunak egina (22. or.).
- Galdera, sailestarren ikastetxea Sarrigurenera eramateko hitzarmenaren zehaztapenei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (23. or.).
- Galdera, sailestarren ikastetxea tokiz aldatzeari eta orube horretan babes ofizialeko etxebizitzien portzenta-jea ez aplikatzeari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2009ko azaroaren 4ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Nafarroa Bai parlamentu-taldea ez dago ados UPNren Nafarroako Gobernuak legebiltzar honetan eztabaidatu eta bozkatzeko aurkeztu duen lege proiektuarekin. Atzeraldi ekonomikoko egoera batean sarturik gaude, eta haren ondorio okerrenak herritarrak eta familiak pairatzen ari dira, langabeziak gora egin baitu eta ugaritu egin baitira era guztietako zailtasun ekonomikoak.

Egunoa bezalako egoera batean, administrazioek beren jarduna areagotu egin behar dute, ekonomia eta gizartea dinamizatzeko motorra diren aldetik, eta herritarren aldeko justizia sozialean eta berdintasunean sakontzeko ekintzak bultzatu behar dituzte, herritar horiek baliatu ahal izan daitezzen kalitatezko zerbitzu publikoak jasotzeko dauzkaten eskubideez. Administrazioak, hasteko, soiltasuneko jarraibide zorrotzak markatu behar ditu bere kudeaketan; bestalde, ustelkeriazko edo gehiegikeriazko edozein aukera deusezta-

tu behar du eta funts publikoen kudeaketa errentagarri eta zorrotzaz arduratu behar du.

Alabaina, foru proiektu hau ez da arestian aipaturiko ikuspegitik egituratu, baizik eta printzipio neokontserbadore eta neoliberalak oinarri hartuta. Uko egiten dio fiskalitatea aberastasuna birbanatzeko benetako tresna bat izateari. Uko egiten dio fiskalitatea izateari, batetik, herritarren berdintasuna eta, bestetik, ongizatearen estatua osatzen duten prestazioen progresioa eta ororen-ganatzea bermatuko dituen ekintza publikoaren zati bat. Orobat, uko egiten dio administrazio publikoaren sendotze finantzarioari eta kaudimen egonkorriari.

Abiapuntu daukagun egoeran, egiaztatuta dago urtez urte UPNk egin dituen aldaketetan nagusitu diren parametro fiskal klasikoak birplanteatzeko beharra dagoela. Kezka handiz adierazi beharra dago UPNren formula fiskalen zuzeneko ondorioa izan dela diru-sarrera fiskalek, 2009an, behera egitea; hain zuzen ere, 500 milioi pasa txikiagoak izan dira 2007an baino. Eta hori ezin zaio soilik egotzi gaur egun pairatzen ari garen krisialdi ekonomikoari. Izan ere, UPNk behin eta berriz aldaketak egin ditu errenta handienak dituzten populazio segmentuen presio fiskala arintzeko –gure parlamentu-taldea ideologikoki ez dator bat horrekin–, nahiz eta pertsona horiek izan, hain zuzen ere, krisialdi ekonomikoari aurre egiteko egoera onenean daudenak. Ildo horretan kokatzen da ondarearen gaineko zerga kentzea eta PFEZaren tasa marjinala behin eta berriz gutxitzea. Izan ere, aldaketa horiek betiko finkatuta uzten ditu foru lege proiektu honek.

Gainera, foru lege proiektu hau arlo fiskalaren arloan daukagun autogobernuari buruzko jarrera guztiz konplexudun batekin egin da. Ekimena izan eta gure erabakitze gaitasuna erabili beharrean lurraldearen berriazko premiei egokitutako politika fiskal bat definitzeko, sistematikoki Estatuko

Gobernuak diseinaturiko formula fiskal okerrak inportatzen dira (Estatua da, izan ere, bere herritarrak, oneratze ekonomikoaren arloan, Europako azken tokietan egotearen erantzulea), eta uko egiten zaio sistema fiskal propio baten artikulatze arduratsuari, gure errealitatetik abiatua eta gure premiak asetzea helburu izanen duena. Esan dezakegu UPNren gobernuak aurkeztutako lege proiektuak gure autogobernuari uko egiten diola, tazituki, nahiz eta arlo fiskala izan, hain zuzen ere, autogobernu horren atal erakusgarriena.

Askotan entzun diogu UPNren egungo Nafarroako Gobernuko Ekonomia kontseilariari esaten aurreko ekitaldian, krisialdi ekonomikoan bete-betean geundela, Gobernuak ondarearen gaineko zerga kentzeko "behartuta" ikusi zuela bere burua, nahiz eta aldi berean aitortu agian ez zela unerik egokiena. Ondorioa: 70 milioi euro gutxiago bildu dira zergetan. Baina Nafarroako Gobernuaren afasia iristen da baita ekimenik ez izatera ere fortundun handiei zergapetze-formulak ezartzeko edo beste zerga-figura batzuk erabiltzeko. Europako herrialde aurreratuenen egitura fiskalek erakusten dute ezen, askotan argudiatu den arren ondarearen gaineko zergari buruzko ereduak aparteko kasu batzuetan baino ez duela antzekotasunik beste esparru batean, egia dela beste herrialde horietako presio fiskala Nafarroakoa baino handiagoa dela, eta presio fiskal horren barrenean zuzeneko zergak edo errentei eta kapitalari ezarritako zergak direla, hain zuzen ere, aldea markatzen dutenak, zeren eta zeharkako zergapetzeak antzekoak baitira. Laburbilduz, Nafarroako zergapetzearen egiturak progresibotik gutxiago dauka Europako herrialde aurreratuenen zergapetze-egiturek baino; eta herrialde horiek dira, adierazi den bezala, Nafarroak baino zama fiskal handiagoa izanda –hain zuzen ere, zuzeneko zerga-figuretan dago aldea–, krisialditik aurrea ateratzen ari direnak.

Bestalde, uste dugu derrigorrezko aitopen formula fiskalizatuak sustatu behar direla, iruzur fiskala jazartzeko oso baliagarria eta oinarritzkoa den informazioa lortu ahal izateko. Tributu neurriei buruzko proiektuak ez ditu ekimen zehatz eta efektiboak planteatzen itzurpen fiskala jazartzeko, ez eta gaur dauden zigorgabetasuneko hobi fiskalak agerrarazteko orduan ere. Egungoa bezalako krisialdi ekonomiko batean, are agerikoagoak dira gure sistema sozialerako ekarpenak egiteko ardu sozialaren arloan gertatzen diren iruzurrezko jokabideak. Eta proiektu honek berariaz egiten dio uko iruzur fiskala agerrarazteko eta jazartzeko sistema indartu bat garatzeari, nahiz eta hori justizia-kontu bat izan eta, aldi berean, baliagarria izan administrazio publikoenak diren baliabideak, era-

biltzeko moduan ez daudenak, egungo egoera zuzentzeko neurriei gehitzeko, esparru guztietan.

UPNren Gobernuak Nafarroako Parlamentura igorritako proiektuak uko egiten dio kapitaleko errenten zergak laneko errenten zergekin parekatzeko ausarki aurrera egiteari. UPNren gobernuak proposaturiko aldaketek José María Aznarren gobernuak abian jarritako zergapetzearen asimetria finkatu besterik ez dute egiten, eta haietan apustu egiten da egungo ezarpenaren egoera betiereko bihurtzearen alde; esate baterako, burtsaren jokoaren bidez lortutako errenten zergazama laneko errenten bidez lortutako kopuru beraren zerga-zamaren erdia izanen da. Bereziki agerikoa da Nafarroako Gobernuak uko egitea ezarpena justizia eta berdintasun irizpideekin erregulatzeari kapital aldakorrek 100 sozietate baino gehiagori, eta haiek osatzen dituzten pertsonen parte-hartze efektiboaren bermea ikuskatu ere ez da egiten.

Era berean, indarrean jarraitzen du Arartekoak berak gaiari buruz egin zuen txostenean zuzeneko zergapetzearen arloan zehatzen zituen zergapetze-arloak erregulatzeko aukerak. Ekimen falta argia nabarmentzen da, lidergorako bokaziorik eza eta gure autogobernuaz baliatzeko planteamendu konplexuduna, hura etengabe mugatuz Estatuarekiko beharrezkoa den "harmonizatze orokorraren" ondorioz, nahiz eta harmonizazio horrek ez duen inolaz ere eragozten parlamentu-talde honek adierazitako arloetan jardutea. Nolanahi ere, zuzenketak aurkeztu ditugun lege-proiektuak beste behin saihesten du Nafarroako sistema fiskalak –Euskal Autonomia Erkidegoko sistema fiskalak bezala– Europar Batasunaren esparruan bizirauteko behar den planteamendu sakona. Izan ere, sistema hori autonomien aurrekoa eta, horrenbestez, jatorritzkoa denez, beharrezkoa da, aspalditik, Europako harmonizazio fiskalaren arloko organoek hura zuzenean aitortzea. Jakina da organo horiek jada esku hartu dutela sistemaren kontrol administratiboaren eta jurisdikzionalaren eginkizunak betetzeko. Badirudi helburu horretan arrakasta izateko ezinbestez hartu behar direla kontuan batera jardutearen sinergiak.

Enpresa jarduerarako zerga-pizgarriek ez dituzte behar ziren emaitzak eman, langabeziari buruzko datuek erakusten duten bezala. Atal honetan proposaturiko aldaketak, berariaz sozietateen gaineko zergari dagokionez, badirudi orientatuta daudela enpresa batzuei, abagune honetan, Administrazioarekiko dituzten ardua fiskalak arintzera. Erreforma fiskal batzuk egin behar dira, erreforma horien bidez eta bultzatuz litezkeen bestelako lege-ekimenen bitartez industria sektorearen berritzea-

ren eta modernizatzearen sustapena bultzatzeko. Halaber, nabarmentzekoa da nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko profesionalentzako eta autonomoentzako neurri zehatzak falta direla, nahiz eta krisiak haiek bereziki kaltetu dituen.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zioak: Proiektuak laneko errenten presio fiskala areagotzea eraginen du, 17.000 eurotik gorako diru-sarrera garbiak dituzten langileen PFEZaren kuotan lanarengatik kenkaria kenduz.

Langileen zama fiskalaren areagotze horrek dozenaka milioi euroko eragina izanen du.

Gure ustez zuzengabea da langileei zergak igotzea, haiek baitira krisiarengatik kostu handiena ordaintzen ari direnak eta PFEZaren diru-bilketa-zen zatirik handiena beren bizkar hartzen dutenak.

Era berean, justifikaziorik gabea iruditzen zaigu proposatzea Espainiako lurralde komunerako onetsitako kapitaleko errenten presio fiskalaren igoera arina Nafarroan are arinagoa izan dadin.

Estatuko gobernuak aurrezkiaren errentetarako onetsitako % 21eko tasaren ordean, proiektuak % 20ko tasa planteatzen du.

Planteaturiko neurriek norainoko mugatua dute, eta haietatik aipagarrienak, jada adierazitakoak adibidez, laneko errentak zigortzen jarraitzearen ildokoak dira, eta kapitaleko errentei tratu pribilegiatua jarraitzearen ildokoak.

Proiektuak ez du sistemaren sakoneko erreforma bat biltzen, hain zuzen ere azken urteetan galdu den progresibotasuna eta diru-bilketa-aren ahalmena berreskuratzeko, hain zuzen ere gaur egun hain presakoa dena krisi ekonomikoak diru-bilketan sorrarazitako galera arintzeko.

Ogasun publikoarentzat zuzengabeak eta kaltegarriak diren neurriak ere ez dira zuzentzen; esate baterako, berriki ondarearen gaineko zerga kentzea.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Osoko zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Legea,
pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa**

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 15ean, Diputatuen Kongresuak Pertsonen Sexuaren Aipamena Erregistro Zibilean Zuzentzea arautzen duen 3/2007 Legea onetsi zuen. Lege horren bidez, Estatuko legegileak, erregistroak eta tresna publikoak antolatzeke dituen eskumen eskusiboak erabiliz –1978ko Konstituzioaren 149.1.8 artikulua esleitzen dizkion eskumenak–, espresuki arautu zituen bi egoera pertsonal, zeinak baitira transexualitatea eta genero-nortasuna, eta izaera bat, zeina baita pertsonaren sexua, hertsiki lotuta daudenak Nafarroako Zuzenbide Zibilean eta Espainiako gainerako zuzenbide zibil guztietan betidanik kontuan hartu diren eskubideekin, nortasunaren garapen libreakin, duintasunarekin eta intimitatearekin. Arautze partziala izan da, ordea; izan ere, soilik hartu dira kontuan Erregistro Zibilean pertsonaren sexuari buruzko inskripzioa aldatzeko beharrezkoak diren betekizunak.

Halaber, beharrezkoa da gogora ekartzea Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua; horren arabera “espainiarrak legearen arabera berdinak

dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal edo sozialak aintzat hartuta”.

Nafarroako ordenamendu juridikoaren interpretazioan eta aplikazioan oinarrituta, foru lege honen xedea da, aipatu lege xedapenak kontuan hartuta, transexualen izaera zehaztea, zalantzan jarri gabe, agerikoa denez, Estatuaren eskumena, arautzeko, erregistro zibilaren arloan, transexualek sexua eta izena aldatzeko bete behar dituzten baldintzak.

Edonola ere, foru lege honetan ez da zehazten zein kasutan alda daitekeen erregistroko izena; aldiz, zehazten du legegilearentzat zer den pertsona transexual bat eta nola egiaztatzen den izaera hori, foru lege honetan ezartzen diren eskubideak eraginkorrak izan daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen-esparruan.

Horrekin lotuta, Orientazio sexualari edo genero-nortasunari buruzko giza eskubideen nazioarteko legeria aplikatzearen gaineko Yogyakarta printzipioen sarreran aipatzen denez –printzipio horiek 2007ko martxoaren 26an aurkeztu ziren, Genevan (Suitza) egin zen Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Kontseiluaren laugarren bilkuraren barruan, Legelarien Nazioarteko Batzordeak eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zerbitzuak proposatuta–, gaur egun estatu askok dituzte berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerrako eskubideak bermatzen dituzten legeak eta konstituzioak, sexuagatiko, sexu-orientazioagatiko edo genero-nortasunagatiko bereizketarik gabe.

Sexua, eta hori hartu behar dugu abiapuntu, jaiotzeko unean izaten diren kanpoko organo genitalen ikuste hutsetik harago doa: zientzia modernoak erakutsi duenez, errealitate konplexua da, kromosomekin, gonadenik eta hormonekin, besteak beste, zerikusia duten gertakarien kate baten ondorio. Gertakari horiek, elkarren segidan,

zehazten dituzte gizonezkoak edo emakumezkoak bezala ezagutzen ditugunak. Bestetik, batzuetan gertakarien kate horrek hausturak eta bereizketak izaten ditu, eta horren emaitza izaten da bi sexuen ezaugarri gurutzatuak dituzten pertsonak izatea. Alabaina, intersexualitatea agertzen bada ere neurri batean edo bestean bi sexuen ezaugarri fisikoak dituzten pertsonetan, medikuntzak eta psikologiak egiaztatutako errealitatea da badirela zenbait pertsona, bilatzen dutenak beren kanpoko itxura fisikoa egokitzea berezko sentitzen duten sexura eta jaio zireneko unean zuten sexuaz bestea hartzen dute gizartearen aurrean, dirudenez erabaki hori hartzeko kanpoko arrazoi fisikorik gabe. Gertakari hori transexualitate izenez ezagutzen da, eta ez du aurrekoarekin zerikusirik.

Martxoaren 15eko 3/2007 Legeak honela definitu zuen transexualitatea: "hasieran inskribaturiko sexu morfologiko edo genero fisiologikoaren eta eskatzaileak sentitzen duen genero-nortasunaren edo sexu psikosozialaren arteko disonantzia egonkorra eta iraunkorra." Beraz, transexualitateak lotura du sexuaren kontzeptu ez erabat biologiko batekin –hala erabaki zuen aho batez Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2002ko bi epai garrantzitsutan–, baizik eta, batez ere, kontzeptu psikosozial batekin; izan ere, aitortzen da pertsonetan bere izaera egituratzen duten ezaugarri psikologikoak gailentzen direla azkenean, eta horiek direla giza-adimenari eta espirituari lehentasuna ematen dietenak, edozein kontu fisikoren gainetik.

Izan ere, genero-nortasunaren kontzeptuak harremana du generoaren barneko eta norberaren bizipenarekin, pertsona bakoitzak bere sakonean sentitzen duen moduan, kontuan hartuta gorputzaren bizipen pertsonala eta generoaren bestelako adierazpenak, hala nola janzkera, hitz egiteko modua edo jokamoldea. Nortasun hori ez datorrenean bat jaiotzeko uneko sexuarekin –aipatu legea desadostasun horri buruzkoa da, hain zuzen–, bat ez-etortze horrekin batera agertzen da, eskuarki, beste sexuko pertsona bat bezala bizitzeko eta onartua izateko nahia, eta, horren ondorioz, norberaren gorputza aldatzeko nahia, metodo hormonal, kirurgiko edo bestelakoen bidez, berezkozat hartzen den sexuarekin ahalik eta kongruenteen egiteko gorputz hori.

Orduan, gatazka sortzen da pertsonaren eta bere gorputzasunaren eta bere ingurune pertsonalaren artean; izan ere, pertsona horren portaera berez justifikatzen duten ageriko zeinu fisikorik izan ezean, ingurukoek ezin dituzte ulertu bere jokamoldearen arrazoiak. Pertsona bakoitzaren idiosinkrasia islatuz, pertsona transexualaren jokabideak eta bilakaerak erakusten dute bizi duten

borroka, hala bere burua ezagutzeko eta bere nortasuna onartzeko, nola sozialki garatzeko bere baitan egiazki sentitzen duen sexuaren arabera. Zailtasunak kontaezinak dira, eta prozesu horrek eragiten duen sufrimendua handia. Egiten den ahalegin normatibo orok prozesu hori errazteko balio behar du, eta ahalbidetu behar du pertsona ahalik eta trauma arinenarekin egokitzea pixkanaka eta bere giza-ahalmenak erabat garatzea.

Hori dela eta, legegilearen ustez, urrats garrantzitsua da Diputatuen Kongresuak martxoaren 15eko 3/2007 Legea onetsi izana; izan ere, lege horrek ahalbidetu du pertsona horiek Erregistro Zibilean agertzen diren sexua eta izena aldatu ahal izatea, eta, horrela, errazagoa izatea pertsona horren izenean dauden administrazio-agiri guztiak bere egiazko genero-nortasunera egokitzea. Hala ere, pertsona transexualen egoeraren konplexutasunak Erregistroko esparrutik harago doan arreta integrala behar du: genero-nortasuna, nortasunaren eskubideen zati den aldetik, lotzen da pertsonaren duintasunerako eskubidearekin –Konstituzio Auzitegiak apirilaren 11ko 53/1985 epaiaren bidez horrela definitu zuen: "pertsonari datxekion balio espiritual eta morala, bereziki adierazten dena norberaren bizitzaren autodeterminazio kontziente eta arduratsuan, eta besteen aldetiko errespetu-nahia dakarrena"–, bai eta nortasunaren garapen libreari buruzko eskubideekin eta osasunerako, integritate psikofisikorako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideekin ere.

Horrenbestez, legeak, lehenik eta behin, pertsona batek legezko sexua ondorio guztietarako aldatzeko duen borondatea aitortu ez ezik, orobat aitortu behar du pertsona transexualek badutela barru-barruko beharrezkoak, askatasunez adierazten denean, tratu mediko egokia jasotzeko eta fisikoki hartutako sexura ahalik eta gehien gerturatzeko.

Horrekin lotuta, pertsona transexualen osasuna zaintzeko laguntza integralak psikologiaren eta medikuntzaren arloan zehaztutako prozedura multzo bat biltzen du, pertsona transexualak lehen eta bigarren mailako sexu-ezaugarriak bere genero-nortasunera egokitu ahal izateko, kasuaren arabera, kontuan hartuta, agerikoa baita, pertsona transexualen artean askotariko jokamolde eta erantzunak izaten direla.

Pertsona transexual guztiek ez dute modu berean bizitzen beren transexualitatea; horrenbestez, egiten den esku-hartzea ezin da homogenea izan eta, horrekin lotuta, foru legeak kontuan hartzen du aniztasun hori eta aitortzen du beharrezkoa dela irizpide mediko, sozial eta psikologiko

banakatuak eta pertsona bakoitzari egokituak ezartzea. Hala, pertsona transexualaren genero-nortasuna erabat errespetatuz, ezartzen da pertsona transexualari eman beharreko laguntza ez dela soilik sexua berresleitzeko ebakuntza egitea –baginoplastia eta klitoriko ebakuntza emakume transexualei; metaidoioplastia edo faloplastia gizonen transexualei–, hori ez baita, kasu askotan, sexua berresleitzeko prozesuaren funtsa. Prozesu horrek zenbait prozedura hartzen ditu bere baitan, hala nola laguntza psikoterapeutikoa –arreta berezia jarri behar da autolaguntza mekanismoen erakuntzan, gizarte- eta familia-ingurunearen gaitzespenari eta gizarte- edota lan-bazterketari aurre egiteko–, sexu morfologikoa norberaren genero-nortasunera egokitzeko ordeko hormona-terapiak, pertsona identifikatzeko nabarmenak diren ezaugarri morfologikoen –gorputz-enborra eta zintzur-sagarra, esate baterako–ebakuntza plastiko-kirurgikoak, batzuetan beharrezkoak direnak, edota ahotsaren tonu eta modulazioa edo aurpegi-ko ilea bezalako kontuetarako laguntza osagarriak.

Bigarrenik, bistakoa da areagotu egin direla sexua berresleitzeko prozesuaren diziplina anitzeko izaera eta berezko zailtasunak –nahikoa da aipatzea gizonen transexualen genitiletako ebakuntzak, horiek baitira gutxien egiten direnak, duten arriskuagatik eta ondorengo funtzionaltasun urologiko eta sexualei buruzko zalantza dela eta–. Horren arrazoia izan da botere publikoek izan duten erreparoa halako ebakuntzak beren gain hartzeko, eta horren erakusgarri da soilik duela 25 urte despenalizatu zirela pertsona transexualei eginiko genitalen ebakuntzak. Hori dela eta, beharrezkoa da transexualitatearen arloko ikerketa zientifikoa sustatzea eta arlo klinikoan etengabeko eguneratzea bultzatzea, transexualitatearekin zerikusia duten tratamenduetan egiten diren aurrerapen zientifiko eta teknologikoei dagokienez.

Hirugarrenik, komenigarria da gogoraraztea Europar Batasuneko Parlamentuaren 1989ko irailaren 12ko Transexualen Bazterketari buruzko Erabakiak aitortzen duela pertsona bakoitzak duen eskubidea, gizakia den aldetik, bere nortasunaren xehetasunak ezartzeko, eta, horretaz gain, estatu kideak premiatzen dituela zenbait neurri gauza ditzaten, besteak beste sexua aldatzeko tratamenduak kasuan kasuko osasun sistema nazionalen sartzeari, gizarte-laguntzak ematea sexu-egokitzapen dela eta lana edo etxebizitza galdu duten pertsona transexualei, kontsultategiak jartzea pertsona transexualentzat, autolaguntzarako erakundeei laguntza finantzarioa ematea, neurri bereziak hartzea pertsona transexualek lana izan dezaten sustatzeko, eta jaiotza agirian eta nortasun agirian

izena aldatzeko eta sexua inskribatzeko eskubidea onartzea.

Azkenik, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 32. artikulua, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 36. artikulua edota Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legearen 1. artikulua aitortzen dute Nafarroako Foru Komunitateak eskumena duela gisa horretako gai gehienak arautzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Nafarroako administrazio publikoek dagokie, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 5 eta 6. artikuluei jarraikiz, pertsona transexualen taldea bezalako batek osasun arloan, arlo psikologikoan eta sozialean dituzten beharriak erantzutea eta horretarako ahalik eta balibide gehien erabiltzea –eta lesbianen, homosexualen, transexualen eta bisexualen elkarrekin egindako lan garrantzitsua aitortzea botere publikoek ezer egiten ez zuten urteetan–, programa eta neurri multzo bat abian jartze aldera, hala nola transfobiaren aurkako kanpainak eta ekintzak, osasun arloko zerbitzu berariazkoak, aholkularitza juridikorako eta laguntza psikologiko eta sozialerako zerbitzuak, bai pertsona transexualentzat bai bere familia eta hurbilekoentzat, edota diskriminazio positiboko politika aplikatzea lan arloan, pertsona horiek pairatzen dituzten bazterketa, estigmatizazio eta eskubide-ukatze egoerak ekiditeko.

Hartara, komenigarria da segurtasun juridikoari zehaztasuna ematea, arlo horretan adingabeen eskubideak ere babestu behar baitira, eta, horrekin lotuta, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikulua arabera, Foru Komunitateak eskumen osoa du ondoko gai hauen gainean: gizarte laguntza, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika, ongintza- eta laguntza-elkarteak eta adin txikikoen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak.

Argudio horrekin batera, gainera, esan behar da Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa dela lurralde horretan adingabeen prebentzio eta babesaren eta organo jurisdikzionalen hartutako neurriak betetzearen arloko eskumena duen entitate publikoa, foru lege horretan ezarritako moduan eta

legeria zibilean eta arlo honetan aplikatzekoak diren estatuko gainerako legeetan xedatutakoarekin bat. Gainera, 3. idatz-zatian ezartzen denez, adingabeei buruzko eskumenak bere gain dituen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu: a) Neurri babesleak hartu eta bertan behera uztea eta erreforma neurriak gauzatea, Ministerio Fiskalari eta adingabeen arloan eskudun diren organo jurisdikzionaleri dagozkien eginkizunak galarazi gabe.

Pertsona transexualen taldeak bereziki pairatzen ditu langabezia eta bazterkeria. Testu arautzaile honek sentiberatasuna agertzen du arazo zehatz horrekin, eta Administrazioak bultzatu nahi ditu, alde batetik, abian jar ditzaten diskriminazio positiboko mekanismoak, eta, bestetik, zaindu dezaten Konstituzioaren aipatu 14. artikuluan ezarritakoa betetzen dela. Administrazioak berak baditu jada bi tresna batez ere, talde horri enplegua lortzea errazteko: Kontratu Publikoari buruzko Legearen 51. artikulua eta gizarte-enplegu babestua. Lehenengo kasuan, duela gutxi onetsi zen Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko otsailaren 19ko 1/2009 Foru Legearen 2. artikuluko c) letran ezarritakoaren arabera, "Administrazio klausulen orrietan alde zuzenetik definituta, eta kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrezkoak asetzea helburu, beharrezko horiei erantzuten dieten irizpideak jasoko dira, hala nola zuzentzen zaizkien ezgaitasuna duten pertsonen, lan merkatuan kalte-tutakoei eta enplegu-kolokatasunean daudenei edota zuzenduta daudenak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak betearaztera edo pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak ziurtatzera". Horrenbestez, helburua da talde hori sartzeko enplegurako programa berezietan.

Halaber, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa ezarri zuen 69/2008 Foru Dekretuan aurreikusten da gizarte enplegu babestua deituriko prestazio ezbermatua. Prestazio horren onuradunak dira gizartean bazterturik edo hala gertatzeko arriskuan dauden eta enplegu bat lortzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatuzko proiektuan sustatzen dituzten toki entitateak edo irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateak.

12. artikulua helburua da transexualitatearen errespetua eta, horrenbestez, generoari buruzko bizipen aniztasunaren errespetua zehaztea. Hori guztia Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezarritako lege-esparruaren barruan eta Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehen xedapen gehiga-

riko 2. idatz-zatiko c) letran aipatzen diren esku-menetan sartu gabe. Hala ere, zioen azalpen honetan garrantzia ematen zaio transmititzeari hezkuntzan, oinarriko eskubide eta askatasunen eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren errespetuaz gain, aintzat hartu behar direla sexu-orientazio eta genero-nortasun desberdinen errespetua, bai eta edozein genero-nortasun edo genero-adierazpen besteak baino gutxiago edo gehiago izatearen gaitzespena ere.

Horrenbestez, foru lege honen xedea da, alde batetik, talde horren berezitasunei erantzutea eta, bestetik, berezitasun horiek kontuan hartuta, erantzutea pertsona transexualek duten berdintasunaren zentzuari beren eskubide mediko eta sozialak ziurtatzerakoan. Eta, horretaz gain, jasotzea Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua espiritua, bertan ezartzen baita botere publikoen betebeharra dela beharrezkoak diren baldintzak sustatzea banakakoaren eta berau sartzeko den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezkeen; horien betetasuna galarazten edo zailtzen duten eragozpenak kentzea eta politika, ekonomia, kultura eta gizartearen arloan herritar guztiek parte har dezaten erraztea.

Hori dela eta, foru lege honek integrala izan nahi du; izan ere, helburua da pertsona transexualen taldeak Nafarroako gainerako herritarren bizi baldintza berdina izan ditzan, eta, horretarako, osasunaren arloko neurriez gain, beharrezkoa da baita ere diskriminazio positiboko neurriak hartzea lan arloan, dauden sinergiak baliatuta, eta hezkuntzaren esparruak eta funtzionarioen sentiberak izatea foru lege honetan aldarrikatzen den aniztasunarekin.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da pertsonen bermatzea ezen eskubidea izanen dutela, baldin eta jaiotzean esleitutako sexuaz bestea hartzen badute gizartearen aurrean, jasotzeko Foru Administrazioetik arreta integrala eta beren beharrezko mediko, psikologiko, juridiko eta bestelakoetara egokitua, gainerako herritarrek jasotzen duten moduan, Nafarroari dagozkion eskumenen esparruan.

2. artikulua. Foru Administrazioaren tratamendua.

Foru Administrazioak, parte hartzen duen kasu guzti-guztietan, jardunen du kontuan hartuta pertsonak beren genero-nortasunaren arabera tratatu behar direla, hau da, nor bere egindako sexuaren arabera, pertsona horrela aurkezten baita gizartean.

3. artikulua. Onuradunak.

1. Foru lege honetan zehazten diren prestazioen onuradunak izanen dira, oro har, Nafarroako edozein udalerritan bizi diren pertsona transexualak, zein ere den haien lege nahiz administrazio egoera, eta prestazioak egiazko berdintasun baldintzetan emanen dira.

2. Foru lege honen ondorioetarako, pertsona transexualak dira, martxoaren 15eko 3/2007 Legearekin bat, Erregistro Zibileko sexuari buruzko aipamena aldatu dutenak.

3. Foru lege honetan ezarritako prestazioen onuradun izan ahalko dira, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraikiz, sexuari buruzko inskripzioa aldatzeko izapideak hasi dituzten pertsonak, baldin eta babeseraren behar badute genero-nortasun berrirako iragaite-egoeraren ondoriozko diskriminazioa gainditzeko.

I. TITULUA
Osasun arloko laguntza
pertsona transexualentzat

4. artikulua. Nafarroako osasun sistema publikoaren bidezko laguntza.

1. Nafarroako osasun sistema publikoak eginen ditu foru lege honetan eta legea garatzen duten arauetan ezarritako diagnosiak eta tratamenduak, osasun publikoaren arloko prestazioen esparruan.

2. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5. artikuluan jasotako eskubideen titularrak dira pertsona transexualak. Bereziki, ondoko eskubideak dituzte ospitale eta erietxe publiko zein pribatuetan:

– Beren genero-nortasunari dagokion tratua jasotzera eta hari dagozkion geletan edo zentroetan ingresatua izatera, sexuaren arabera areto desberdinak daudenean, eta beren genero-nortasunari dagokion tratua jasotzera.

– Bai tratamenduari dagokion espezialitate zehatzean, bai, oro har, transexualitatearen arloan esperientzia duten profesionalen arreta jasotzera.

– Beharrezkoak diren administrazioaren arloko eta bestelako neurriak har daitezten, pertsona transexualaren ugalketa-eskubideak ziurtatze aldera, bazterketarik gabe sexu-orientabidea edo genero-nortasuna dela eta.

3. Espresuki debekatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan abertsio-terapiak erabiltzea pertsona transexualekin, ez eta bestelako prozedurarik ere, pertsona transexualaren nortasuna suntsitzeko ahalegina bada, edo beste edonola iraintzea edo tratua baztertzaila, umiliaga-

ri, edota bere duintasun pertsonalaren aurkakoa ematea badakar.

4. Erregelamendu bidez arautuko da Nafarroako Osasun Zerbitzuan erreferentzia izanen den transexualitateari buruzko unitate bat. Unitate hori osatuko dute zehazten diren osasun laguntzako eta arreta psikologiko, psikoterapeutiko eta sexologikorako zerbitzuko langileek, eta xede izanen du zehaztea, dagokion Estatuko erreferentziako unitatearekin lankidetzan, pertsona transexualak jarraitu beharreko prozesua, kontuan hartuta bere egoera pertsonala, osasun egoera eta berezko sentitzen duen sexura egokitzeko ezaugarri morfologikoa aldatzeko nahia.

5. Foru lege honetan zehaztutako zenbait tratamendu edo ebakuntza bideratu ahalko dira sexua berresleitzeko ebakuntzan espezializatutako zerbitzua duten eta kalitateari buruzko estandar egokiak dituzten ospitale publiko edo pribatu batzuetara. Kasu horretan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere gain hartuko ditu pertsona transexualaren joan-etorriari, ostatuari eta tratamendu mediko-kirurgikoari buruzko gastuak.

5. artikulua. Adingabe transexualen arreta.

Pertsona transexual adingabeek erabateko eskubidea dute diagnosi egokia eta beren transexualitateari buruzko tratamendu medikoa jasotzeko, bereziki hormonien bidezko terapia. Ematen den osasun laguntza, adingabeei ematen baldin bazaie, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak ezartzen dituen baldintzetan emanen da; izan ere, foru lege horren bidez gaixoaren zenbait eskubide ezartzen dira, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa. Halaber, azaroaren 14ko 41/2002 Legea bete beharko da –oinarriko lege horrek arautzen ditu gaixoaren autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak–.

6. artikulua. Gida klinikoa.

1. Erregelamendu bidez ezarriko da pertsona transexualei laguntzeko gida kliniko bat, zeinaren xedea izanen baita profesionalen arteko adostasun nahikoa lortzea esparru psikologiko, mediko, eta kirurgikoan, kontuan hartzea nazioartean arlo horretan aplikatzen diren irizpide objektibo eta estandarrek, eta zehaztea profesionalak zer kualifikazio beharko duten jarduera bakoitzerako eta zein izanen diren bideratze-zirkuitu egokienak.

2. Hala ere, aipatu gida klinikoak ondoko ildoak jaso beharko ditu gutxienez:

a) Pertsona transexualei aitortuko zaie eskubidea dutela beren beharrezkoen arretarako eta berriazko

helburuetarako egokienak diren tratamenduak jasotzeko, bai eta bere garapen pertsonala erraztuko duen osasun arloko arreta integrala jasotzeko ere.

b) Pertsona transexualek bermatuta izanen dute eragiten dieten tratamenduen formulazioan parte hartzeko eskubidea, betiere pertsona transexualaren autonomia aitortzetik abiatuta, sexu-orientazioagatiko edo genero-nortasunagatiko bereizketarik gabe eta errespetu osoz.

c) Bermatuko da hormonon bidezko terapiak, bularretako edo gorputz-enborreko kirurgia plastikoa, edota sexua berresleitzeko ebakuntzak –baginoplastia, klitoriko ebakuntza, metaidoioplastia edo faloplastia– behar den unean eginen direla eta ez direla beharrik gabe ukatuko edo atzeratuko.

Nolanahi ere, bermatu eginen da transexualek prozesuari buruzko informazioa jasotzeko eta prozesuari berari buruz kontsultatuak izateko eskubidea.

3. Laguntza psikologikoaren eta psikoterapeutikoaren arloan, aplikatzekoa izanen den gida klinikoak xede gisa ezarri beharko duena da pertsona transexualak lortzea bere eginiko generoaren rolan bizitzeko beharrezkoa den abilezia, tratamendu somatikoak eskaintzen dizkion aukeren eta mugen balorazio errealista eginda, bai eta gizarte- eta familia-egokitzapen prozesua erraztea eta balizko gizarte-bazterkeria egoerei aurre egiteko baliabideak ematea ere.

4. Laguntza endokrinologikoaren arloan, laguntza hori emanen da transexualitatearen arloan esperientzia duen psikologo kliniko edo sendagile espezializatu batek emandako gomendio-txostenaren ondoren, eta arlo horretan esperientzia duen endokrino batek emanen du.

5. Laguntza kirurgikoaren arloan, laguntza hori emanen zaie pertsona adindunei, transexualitatearen arloan esperientzia duen psikologo espezializatu batek eta kasuan kasuko pertsonaren hormona bidezko terapia ikuskatzen duen endokrinologoak horretarako gomendio-txostenaren egin ondoren.

6. Sexua berresleitzeko ebakuntzak aldeztu aurretik egin izana ezin izanen da jarri baldintza gisa aurpegiko ilearen fotodepilazioa, tirokondroplastia edo ahotsaren tonua eta modulazioa hobetzeko tratamendua bezalako tratamendu osagarriak jasotzeko.

7. artikulua. Estatistikak eta datuen tratamendua.

1. Pertsona transexualen osasun arloko laguntzaren jarraipenean sartuko da, baita ere, Osasun-

bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak estatistikak sortzea egiten diren tratamendu, terapia eta ebakuntza desberdinen emaitzei buruz. Estatistika horietan zehaztuko dira erabilitako teknikak, izandako arazoak eta erreklamazioak, bai eta laguntzaren kalitatearen balorazioa ere.

2. Estatistiketarako datu horiek biltzean, isilpekotasun, gardentasun, espezialitate eta proportzionaltasunaren printzipioei jarraituko zaie. Estatistiken isilpekotasuna dela eta, Nafarroako administrazio publikoek ezin izanen dituzte inolaz ere zabaldu pertsona transexualei buruzko datu pertsonalak, edozein dela ere haien jatorria.

3. Lehen idatz-zatian aurreikusitako estatistikak egiteko, fitxategi automatizatu bat sortuko da. Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen da fitxategi horren titularra, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko du.

8. artikulua. Profesionalen prestakuntza.

Foru Komunitateko osasun arloko administrazioak beharrezkoak diren neurriak ezarriko ditu, kasuan kasuko elkarte profesionalekin eta Nafarroako edo Estatuko unibertsitateekin lankidetzan, ziurtatze aldera profesionalek duten eskubidea transexualitatearen arloko kalitatezko prestakuntza jasotzeko, baita pertsona transexualek duten eskubidea ere, arlo horretan esperientzia nahikoa eta egiaztatua duten profesionalen arreta jasotzeko.

II. TITULUA

Lan arloko laguntza pertsona transexualentzat

9. artikulua. Lanean ez baztertzea.

Nafarroako administrazio publikoek eta hari atxikitako erakunde publikoek ziurtatuko dute, langileen kontratazioak eta sustapen-politikan, ez dela bereizkeriarik eginen sexu-orientabidea edo genero-nortasuna dela eta.

10. artikulua. Diskriminazio positiboko neurriak lan arloan.

Nafarroako administrazio publikoek diskriminazio positiboko neurri egokiak prestatuko dituzte, jada badauden enplegarritasun eta laneratze baliabideak erabilita, pertsona transexualen kontratazioa eta enplegua sustatzeko. Neurri horien xedea izanen da pertsona transexualak bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturean txertatu eta parte hartzeko aukerak hobetzea, gizartean aktiboki esku hartzeko ahalmena handituz eta gizartearen baitako desberdintasunak gainditzen lagunduz.

III. TITULUA

Gizarte-laguntza pertsonei transexualentzat

11. artikulua. Transfobiaren aurkako neurriak.

Nafarroako administrazio publikoek honakoak egingen dituzte:

a) Programa ardaztuak abian jarriko dituzte, xede izanen dutenak gizarte-laguntza ematea trantsizio edo genero-berresleipen prozesu bat iragaten ari diren pertsonen.

b) Bazterketari, aurreiritziei eta beren genero-nortasuna dela-eta zenbait pertsonen osasunari eragiten dieten beste faktore sozial batzuei aurre egiteko programak garatu eta ezarriko dituzte.

c) Trebatze eta sentsibilizazio programak ziurtatuko dituzte, jarrera sexista, aurreiritzi eta estereotipo nagusiei buruzko analisiaren, gogoeta kritikoaren eta ekintza partikularren bitartez borrokatzeko era guztietako bazterkeriaren aurka, eta, halatan, laguntza emateko pertsonen elkar ezagut dezaten, elkarrekin harremana izan dezaten eta euren burua onets dezaten, autoestimua eta duintasuna sustatuz.

IV. TITULUA

Pertsonei transexualentzat laguntzeko beste neurri batzuk

I. KAPITULUA

Transexualitatearen trataera hezkuntza sisteman

12. artikulua. Transexualitatearen trataera oinarritzeko hezkuntzan.

Nafarroako administrazio publikoen xedea izanen da, Estatuko Administrazioarekin lankidetzan, ziurtatzea hezkuntzako metodoak, curriculumak eta baliabideak baliagarriak izan daitezen, besteak beste, genero-nortasunen aniztasuna ulertzeko eta errespetatzeko, eta ulertzeko eta errespetatzeko, halaber, ikasleek, haien gurasoek eta familiek arlo horretan dituzten beharriak.

13. artikulua. Transexualitatearen arloko jarduerak.

Nafarroako administrazio publikoek honakoak egingen dituzte:

a) Trebatze eta sentsibilizazio programak abiaraziko dituzte, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen eta berdintasun eta diskriminaziorik ezari buruzko printzipioen gainekoak, genero-nortasunari buruzkoak barne, hezkuntza sistema publikoko maila guztietako ikasle eta irakasleentzat.

b) Neurri egoki guztiak hartuko dituzte, hezkuntza eta gaikuntza programak barne direla, genero-nortasunean oinarrituriko edozein bazterkeria deuseztatu ahal izateko.

c) Gizartean bazterturik egoteko arriskuan dauden transexualen laneratzeko planak garatuko dituzte.

14. artikulua. Pertsonei transexualentzat buruzko jarduerak.

1. Nafarroako administrazio publikoek honakoak egingen dituzte:

a) Beharrezkoak diren legegintza-, administrazio- eta bestelako neurriak hartuko dituzte, bermatzeko pertsonei guztiek berdintasunean izanen dutela hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntza sisteman berdintasunezko tratua emanen zaiela ikasle, langile eta irakasle transexualentzat, bazterketarik gabe genero-nortasuna dela eta.

b) Baliabide-sistema publiko bat ezarriko dute irakaskuntzako maila, gradu eta mota bakoitzera iritsi eta bertan parte hartu ahal izateko aukera bermatzeko, pertsonei transexualentzat ezaugarri, baldintza eta beharriak egokituriko curriculum eta berriak prestakuntza-eskaintzen bitartez.

2. Erregelamenduzko prozedura bat ezarriko da ahalbidetzeko transexualentzat aukera izan dezaten aldi baterako dokumentazio administratiboa edukitzeko eskoletan, gizarte zerbitzuetan eta osasun zerbitzuetan, hain zuzen ere hobeki integratu ahal izan daitezen trantsizio prozesuan zehar, beharrik gabeko sufrimendu edo bazterkeria egoteko saihestuta.

II. KAPITULUA

Transexualitatearekin eta pertsonei transexualentzat zerikusia duten beste laguntza-neurri batzuk

15. artikulua. Aholkularitza eta laguntza zerbitzua pertsonei transexualentzat eta haien familientzat.

1. Nafarroako Foru Komunitateak izanen du pertsonei transexualentzat aholkularitza juridikoa emateko zerbitzu bat. Zerbitzu horren bidez, laguntza emanen zaie trantsizio edo genero-berresleipen prozesuetan daudenei, Nafarroako bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturean parte hartzeko aukerak hobetzen lagunduko dieten alderdi guztietan, hala nola agiriak aldatzen.

2. Halaber, pertsonei transexualentzat familiei eta hurbilekoei laguntza psikologikoa eta soziala emateko zerbitzu bat atxikiko zaio 4. artikuluan 4. idatz-zatian aipatzen den erreferentziako zerbitzuari.

3. Artikulu honetan aipatzen diren zerbitzuak eman ahalko dituzte pertsona transexualen giza eskubideak sustatu eta babesten dituzten erakundeek, bereziki pertsona transexualen elkarteek, Nafarroako administrazio publikoekin eginiko lankidetzahitzarmenen bidez.

16. artikulua. Nafarroako administrazio publikoek hartu beharreko beste neurri batzuk.

Nafarroako administrazio publikoek honakoak egingen dituzte:

1. Egokitze jotzen diren neurri guztiak hartuko dituzte, hezkuntza eta gaikuntza programak barne direla, generoko nortasunean oinarrituriko edozein bazterkeria deuseztatu ahal izateko.

2. Sentsibilizazio kanpainak abiaraziko dituzte, bai herritar guztientzat, bai indarkeria erabiltzen dutenentzat edo erabil dezaketenentzat, genero-nortasunarekin loturiko indarkeriaren azpian dauden aurreiritziak desagerrarazte aldera.

3. Trebatze eta sentsibilizazio programak abiaraziko dituzte, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen eta berdintasun eta diskriminaziorik ezari buruzko printzipioen gainekoak, genero-nortasunari buruzkoak barne, ondokoei zuzenduak:

a) Epaile, idazkari eta fiskalei, eta Nafarroako Justizia Administrazioako langileei.

b) Foruzainei eta Nafarroako udalerrietako udaltzainei.

c) Espetxe Erakundeetako Nafarroako langileei.

d) Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei eta lan kontratadunei.

4. Ziurtatuko dute titulartasun publikoko hedabideen ekoizpena eta antolamendua pluralista eta ez baztertzaila izanen dela sexu-orientazioarekin eta genero-nortasunarekin zerikusia duten gaiei dagokienez.

5. Pertsona transexualen giza eskubideak sustatu eta babesten dituzten elkarte, talde eta erakundeen aitortza eta kreditatzea babestuko dute.

6. Sustatuko dute Nafarroako unibertsitateetako esparru akademiko guztietan jasotzea eta sustatzea sexu-hezkuntzari buruzko eta zehazki transexualitateari buruzko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa, eta lankidetzahitzarmenak egingen dituzte ondoko xedeekin:

– Ikerketa eta sakontze teorikoari bultzada ematea.

– Pertsona transexualen errealitateari buruzko azterlan soziologikoak prestatzea.

– Pertsona transexualen prestakuntzarako eta enplegurako planak egiteko orientabidea eta laguntza ematea.

– Prestakuntza planak egitea osasun arloko eta transexualitatearekin harremana duten beste ezagutza-arlo batzuetako langileentzat.

Lehen xedapen gehigarria. Gida klinikoa.

Sei hilabeteko epean, adituen batzorde bat osatuko da, pertsona transexualei arreta integrala emateko gida klinikoa prestatzeko. Aipatu batzordea transexualitatearen arretaren arloko profesional adituen diziplina anitzeko talde batek osatuko du. Psikologiaren, sexologiaren, ginekologiaren, urologiaren, laguntza kirurgikoaren eta gizarte zerbitzuen arloko adituak egonen dira talde horretan, bai eta transexualen elkarteetako kideak ere.

Hala ere, gida kliniko horietan arreta berezia jarriko da ziurtatzen pertsona transexualak baimen informatua emanen duela fase bakoitzean tratamenduen aukeren, mugen eta balizko ondorioen, bai eta foru lege honetan ezarritakoaren arabera dagozkion eskubideen ezagutza osoa eta errealista duela.

Bigarren xedapen gehigarria. Erreferentziako unitatea.

Foru lege hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean arautuko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan sortuko den transexualitatearen arloko erreferentzia unitatea, 4.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hirugarren xedapen gehigarria. Justizia Administrazioako eta espetxeetako langileen prestakuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren hitzarmenak sina ditzan Justizia Ministerioarekin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, 16.3 artikuluko a) eta c) letretan xedatutakoa betetze aldera.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

**Foru Lege proposamena, Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua
Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatze-
koa.**

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko azaroaren 12an egin-
dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez har-
tzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztuta-
ko Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua
Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008
Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2009ko irailaren 18ko 91.
Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-
taratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoen eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoen eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoen eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoen eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak eta kasuan-kasuan gertatazen den desbideraketaren ehunekoak, bereziki errepideen obrenak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Seinale hauek berehala alda ditzala.
2. Hemendik aurrera jartzen diren errepedeko seinaleek eta gainerako euskarriek izendapen ofiziala bete dezatela.
3. Lehenagotik jarrita zeudenak aldatzeko pausoak eman ditzala lehen bait lehen.
4. Nafarroako zonalde euskaldunean seinalizazioak eta gainerako euskarriek euskararen legea bete dezatela.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea egunera dezan eta urtero adieraz dezan zeintzuk diren interes orokorreko helburuetarako lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea egunera dezan eta urtero adieraz dezan zeintzuk diren interes orokorreko helburuetarako lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak." Horren jatorria da Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako mozio bat, 2009ko urriaren 23ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea egunera dezan eta urtero adieraz dezan zeintzuk diren interes orokorreko helburuetarako lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legea egunera dezan eta urtero adieraz dezan zeintzuk diren Nafarroako Foru Komunitateko eta bertako herritarrentzako interes orokorreko helburuetarako lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak edo -programak, bereziki nabarmenduta berrikuntzaren, zientziaren, teknologiaren eta kultur zabalkundearen alderdiak, zeinak lagungarriak izanen baitira produkzio-sektorea eta ekonomia modernizatu eta hobetzeko, gizarte ongizatearen sistema bultzatzeko, arlo estrategikoak eta etorkizunekoak garatzeko eta kultura-hazkundera sustatzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologia-zerbitzua emateko sistema bat abian jar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Osasun Zerbitzua-zen zerbitzuen zorroan sar dezan oinetan arazoak izateko arriskua duten pertsonen arreta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010ean abian jar dezan foru erkidegoan gaixotasun baskularrak dituzten pertsonen eta diabetesa duten pertsonen arreta hartzen duen arreta podologikoari buruzko sistema, Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko azterlanean gomendatzen den moduan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen, Atlantikoko mendien, Estellerriko mendialdearen eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendien berariazko ekintza planak gara ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen, Atlantikoko mendien, Estellerriko mendialdearen eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendien berariazko ekintza planak gara ditzan." Horren jatorria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko urriaren 23ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen, Atlantikoko mendien, Estellerriko mendialdearen eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendien berariazko ekintza planak gara ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pirinioen, Atlantikoko mendien, Estellerriko mendialdearen eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendien berariazko ekintza planak gara ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza plan horiek pres-ta ditzan eskualde horietako toki entitateekin eta gizarte eragileen parte-hartzearekin.

3. Ekintza plan horiek Nafarroako Parlamentuan aurkeztu beharko dira 2010eko irailaren 1a baino lehen, halako moduz non, plana ezagutu eta ebaluatu ostean, 2011ko aurrekonntuan sartuko baitira plan abian jartzeko beharrezkoak diren kontusailak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketa arintzeko plan bat presta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren ekintza guztiak abian jar ditzan Nafarroan Klima-aldaketaren Eraginak Arintzeko Plana prestatzeko eta bertan parlamentu-talde guztiek aho batez onetsitako txostenean jasotako helburu eta xedeak kontuan hartzeko, eta, halaber, Klima Aldaketari buruzko Departamentu arteko Batzordea abian jar dezan, funtsezkoa baita Klima-aldaketaren Eraginak Arintzeko Nafarroako Plana gauzatu ahal izateko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraiobide kolektiboen erabilerarako.

HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2009ko azaroaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraiobide kolektiboen erabilerarako."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraiobide kolektiboen erabilerarako

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du webgune bat egin dezan, haren bidez emate aldera herritarrek behar duten informazio guztia Nafarroako edozein garraio publiko kolektibo erabili ahal izateko, bai errepide bidezko garraioarena, bai tren bidezkoarena eta baita aire bidezkoarena ere.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko"

Legebiltzarrak 2009ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txosteneko ondorioak eta gomendioak ezar ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txosteneko ondorioak eta gomendioak ezar ditzan"

Legebiltzarrak 2009ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko irailaren 18ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kW-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten adierazpenarekin.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kW-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten adierazpenarekin"

Legebiltzarrak 2009ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnosi-azterlan bat egin dezan, udalen gizarte-zerbitzuetan langile nahiz aurrekontu alorretan dauden gabeziak hautemate aldera.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAJETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnosi-azterlan bat egin dezan, udalen gizarte-zerbitzuetan langile nahiz aurrekontu alorretan dauden gabeziak hautemate aldera"

Legebiltzarreko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak 2009ko azaroaren

17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen politikoa, Saharako herriarekiko elkartasuna adieraztekoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an egindako bileran, erabaki zuen berrestea Eledunen Batzarrak azaroaren 9an egindako bilkuran onetsitako adierazpen politikoa, Saharako herriarekiko elkartasuna adieraztekoa. Hona testua:

Nazio Batuen Erakundeak behin eta berriro onetsi dituen ebazpenetan aitortzen da sahararrek askatasunean bizitzeko duten eskubidea eta berresten da konponbide bidezko eta baketsu bat bilatzeko beharra, bukatu gabeko deskolonizazio prozesua amaitze aldera. Hala ere, Saharako herriaren egoerak ez ditu betetzen pertsonen bakean garatzeko oinarrizkoak diren justizia, askatasun eta duintasun xedeak.

Egoera horretaz jabeturik, Nafarroako Parlamentuak:

Saharako herriarekiko elkartasun eta babesa berresten du, determinazio askea eta bakea lortzeko bidezkoak diren eskubideen aldeko borrokan.

Nafarroako Parlamentuak berresten du Sahara Mendebaldeko gatazka deskolonizazio prozesu bukatu gabea dela, nazioarteko zuzenbideari jarraikiz konpondu behar dena.

Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Nazio Batuen Erakundearen eta Afrikako Batasunaren Irtenbide Plana aplikatu dadila eta Houstongo akor-

diok bete daitezela, gatazkan diren bi aldeek onartu eta sinatu baitzituzten.

Eskatzen du Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak errespetatu daitezela, berehala askatu daitezela Saharako preso politiko guztiak, eta argi dadila egun desagerturik dauden 500dik gora zibil non dauden eta 151 gerrako gati-buak zein egoeratan dauden, giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeek eskatu bezala.

Elkartasuna adierazten die okupazioa salatzen egunez egun beren osotasun pertsonala, ondasunak eta bizitza arriskuan jartzen dituzten pertsonen, eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua premiatzen du argitara eman ditzan Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi-komisarioaren Ikerketa Batzordeak egin dituen txosten guztiak, eta lehenbailehen eta modu eraginkorrez esku har dezan lurralde okupatuetako sahararren oinarrizko eskubideak eta bizitza babesteko.

Eskatzen du berehala luza dadila MINURSO-ren agintaldia –Mendebaldeko Saharan Erreferenduma egiteko Nazio Batuen Erakundearen Misioa–, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideen errespetua ziurtatze aldera.

Iruñean, 2009ko azaroaren 17a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Infanta Elena egoitzaren funtzionamenduaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa ziurtatzeko.

JOSÉ JAVIER MONZÓN ROMÉ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Monzón Romé jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Infanta Elena egoitzaren funtzionamenduaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa ziurtatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romék, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak azaroaren 26ko eta 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Herritar guztiek ezagutzen dute Infanta Elena egoitzaren kudeaketa Mapfre-Quavitaen enpresari esleitu zitzaioela eta sorturiko eztabaida. Esleipen hori dela eta, parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarrekin zenbait ekimen aurkeztu dituzte azken hilabeteotan.

Zehazki, parlamentu-talde honek informazio eskaera bat aurkeztu zuen 2009ko uztailaren 3an, Nafarroako Gobernuak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak duela gutxi eginiko Infanta Elena egoitzaren esleipenean jasota-

ko eskaintzei, eginiko izapideei eta emandako ebazpen arrazoituari buruz.

Horretaz gain, egun berean, parlamentu-talde honek eskatu zuen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria ager zedin Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean, Infanta Elena zentroa esleitzeko prozesuari, garrantzitsu eta ebazpenari buruz informazio zezan. Hala ere, eskatu zuen bilkura hura egin zedin eskatutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren.

Agerraldi hori 2009ko urriaren 29an egin zen. Bertan, departamentuak –kontseilariak eta berarekin batera agertu ziren teknikariek– emandako azalpen tekniko, juridiko eta politikoak entzuteaz gain, parlamentu-taldean eta foru parlamentarien elkarrekin eledunok gai horri buruz ditugun iritzirik politikoak azaldu genituen.

Zehazki, agerraldia eskatu zuen parlamentariak azaldu zuen bere taldeak eta PSNk harriduraz hartu zutela iragan uztailan Infanta Elena egoitzaren kudeaketa Mapfre-Quavitaen enpresari esleitu izana.

Gainera, PSN kezkatuta dago egoitza horretan eta antzeko laguntza eta gizarte zerbitzu batzuetan pixkanaka gerta daitekeen pribatizazioa dela eta: izan ere, horrelako jokabideekin, Nafarroan pixkanaka sendotuko den laguntza-eredua izanen da gehienbat irabazi asmoa duten enpresen kudeaketan oinarritutakoa. Enpresa horiek ez dira beti seguruak, ez eta kaudimendunak ere, eta horrek arriskuan jartzen du edo jar dezake “hirugarren sektorea” deiturikoaren iraunkortasuna, hau da, gizarte intereseko eta irabazi asmorik gabeko entitateek osatzen duten sektorearen iraunkortasuna.

Kudeaketaren esleipenari buruzko espedientearen zati garrantzitsu bat txosten bat da, 2009ko ekainaren 12koa. Txosten horretan, Mapfren aur-

keztutako proposamen ekonomikoaren balorazio ona egiten da eta eskaintza bideragarritzat jotzen da. Txosten hori, batzorde hartan aipatu nuen moduan, Kontratazio Mahaiak eginiko azken bilerraren –2009ko maiatzaren 15ean egin zen– ondotik eginikoa da, 2009ko ekainaren 12koa baita. Horretaz gain, txostena sinatu zuten Kontratazio Mahaiko lehendakariak, zeinak lehendakari gisa jardun baitzuen bilera guztietan, eta mahaiko kide batek, zeina kide gisa aritu baitzen bilera guztietan.

Uztaileko harridura kezka bilakatu da ikustean gaur Expansión egunkarian –goiburuan eta 21. orrialdean– agerturiko informazio ekonomiko bat. Aipatu albisteak hala dio: “Caja Madridek eta Mapfrek beren egoitzak saldu dituzte. Bio bazkide horien filiala den Mapfre Quavitaek 70 milioi euroko balioa izan lezake.”

Albisteak jarraitzen du esanez aipatu filiala (Mapfre Quavitaek), zeinak adineko pertsonentzako zerbitzuak eta egoitzak eskaintzen dituen, salgai jarri dutela aurreikuspenak ez dituelako bete, jarduera horrek etorkizun handia bazuen ere Menekotasanaren Legearen babesean.

Albistean agertzen diren datuen artean, nabarmentzekoa da Mapfre Quavitaek 48,9 milioi euroko zor finantzarioa zuela 2008an, 70 milioi euroko balorazioaren artean. Bestalde, funts berekiek

48,4 milioi euro egiten zuten 2008ko amaieran –zor finantzarioa baina apur bat txikiagoak–, eta aurreko ekitaldietako galera pilatuek 13 milioi euro egiten zuten.

Egoera finantzario hori ez dator bat, nire uste apalean, 2009ko ekainaren 12an sinatutako bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenarekin, zeina Infanta Elena egoitzaren kudeaketa esleitzeko espedientearen zati baita, lehen aipatu moduan.

Hori dela eta, beharrezkoa eta premiazkoa dirudi eskatzea ahozko galdera hau izapidetu dadila eta, ondorio guztietarako, gaurkotasun handiko galderatzat har dadila.

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuak zer egingen du, kasu bada, Infanta Elena egoitzaren funtzionamenduari bideragarritasun tekniko eta ekonomiko ziurtatzeko, halako moduz non egoitzaren erabiltzaileak ez diren inolaz ere kaltetuko, enpresa kudeatzaileak (Mapfre Quavitaek) dituen galerengatik zailtasun finantzarioen ondorioz edota enpresa hori halako egoitzak eta zerbitzuak kudeatzeko berme tekniko nahikorik ez duen enpresa batek erostearen ondorioz?

Iruñean, 2009ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Monzón Romé

Galdera, salestarren ikastetxea Sarrigurenera eramateko hitzarmenaren zehaztapenei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, salestarren ikastetxea Sarrigurenera eramateko hitzarmenaren zehaztapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat egin du Nafarroako aurrekontu orokorrak aurrera ateratzeko, eta hitzarmen horren bidez salestarren ikastetxea Sarrigurenera eramane da, Gobernuaren ekimenez. Zeintzuk dira aipatu hitzarmenaren zehaztapenak?

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, salestarren ikastetxea tokiz aldatzeari eta orube horretan babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajea ez aplikatzeari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, salestarren ikastetxea tokiz aldatzeari eta orube horretan babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajea ez aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, azaroaren 26rako eta 27rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

Norekin negoziatu ditu Nafarroako Gobernuak salestarren ikastetxea tokiz aldatzea eta lekualdatze horri buruz publiko egin diren baldintzak? Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuak hitzarmen horretan parte hartzeko interes publikoko arrazoiak? Zergatik ez da aplikatuko orube horretan etxebizitzak egiteko jarduera orori aplikatzen zaion babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajea?

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás